

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko uztailak 16 / III. urtea / 84. zenbakia

Baztandarren Biltzarra asteburuan

Gaur zabalduko da Elizondoko Arizkunea Kultur Etxean Baztandarren Biltzarri buruzko erakusketa, argazki, artikulua eta hainbat bitxikerirekin. Aurtengo edizioaren lehendabiziko ekitaldia izanen da, eta berrikuntza nagusienetako, era berean. 1963tik aurrera, hiru urteko etenaldiarekin, baztandar guzien bilgune izate

tea lortu du festak, eta orduz geroztik Nafarroa osoan zehar aniztu diren jaien aintzindaria da. Aurtengo lema —'Euskarak batzen gaitu'— ere urte guzian hauetan izan den erreibindikazioa ekartzen du gogora: euskal kulturaren sustapena. Akaso horregatik, Xorroxin Irratia omenduko dute aurtengo antolatzailleek.



Zubian Barna



BINGEN AMADOZ

Uztailaren 15ean, laneako bidea haturik erantzun hau jaso zuen nere lehenbiziko 'egunon-ak': «Egunon ez, egun normala».

Bukatu dira, bai, astebete luzeko gure erokeri guztiak eta uholdea baretu orduko, urak onera edo, auskalo, agian txarrera itzuli dira. Ginen tokian gaude. Gorputzak nekatuak, burua musika eta jendez beterik, ixiltasunera ezin etsiz, bihotza tristeturik ere bai, ezpaita pozgarri izaten arrunteko erritmoetara bueltatzea eta poltsikoak hutsik. Egia esan askorenak zulaturik zeuden festak hasi aurretik ondoren ikusi ahal izan den bezalaxe.

Usaimenak ez du arrazoirik gozatzeko geratu den ki-ratsekin, ezta begiek ere belardien hondamena aurrean dugularik. Lurra irristakorra dago oraindik eta batez ere itsaskorra zenbait tokitan. Zikinkeria agerian da orain-txe, jendez husturik geratu-tako karriketan.

Jar ditzagun beraz gauzak nolabaiteko ordenuan eta bafez ere garbiketari ekin diezaiogun.

Gogoan eta agian betirako izanen digugu jai-giroan bizi izandakoak eta berriki eza-gututakoak. Onik izan bada gordetu egin beharko da, jakina, eta txarrekoak ordea laister ahan-tzi. San Fermi-nek eraman gaitu aparteko bidetik eta hortaz damutze-rik ez da. Jaierako gunea daukate gure bur-muinek eta betekada izan dute dagoe-nekoz.

Galdutako ahotsa berres-kura dezagun, aurrerantzean horren beharra izanen baitugu espetxeraturik dauden 40 instumiso nafarren alde-koak zabaltzeko.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Alberto Arrancibia eskultorearen lanak ikusgai daude uda osoan Iruñeko Caballo Blanco Mesonean. Euskal mitologiari buruzko eskultura interesgarri batzuek osatzen dute erakusketa hau.

'Garaikideko Pintura' izeneko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan uztailaren 29a arte. Bertan, hamahiru artista ezberdinen lanak ikus daitezke, 1983 eta 1992 urteak bitartean egindakoak.

Fernando Calleja artistaren lanak erakusketa zabalik dago Lizarrako Kultur Etxean, Almudil talde kulturalak antolatuta. Callejaren kuadroak uztailaren 18a arte egonen dira ikusgai.

Otagintzari buruzko erakusketa zabalik dago Lekunberrin eta datozen egunetan bertan egonen da. Bertako obrak ikusteko ordutegi hau ipini dute: lanegunetan, 19.00etatik 21.00etara.

ZINEMA



'La Sirenita' izeneko pelikula eskainiko du Larraungo Euskara Zerbitzuak datorren astelehenetan, uztailak 19, Lekunberrin, 'Zinema kalean' zikloaren barruan. Zine emanaldi hau gaueko 10.00etan hasiko da, herriko plazan izanen da.

'Solo en casa' izeneko pelikula botako dute asteburu honetan Gallipentzu eta Adios herrietan, gaueko 22.00etan. Bihar larunbata, uztailak 17, Gallipentzu izanen da zine emanaldia, eta etzi, igandean, Adios herrian, Nafarroako Gobernuak antolatu duen udako zikloaren barruan.

'Willow' izenburuko filmea botako dute datorren asteazkenean Ziordian Sakanako Euskara Zerbitzuak antolaturik. Emanaldia gaueko 22.00etan hasiko da, eta pelikula euskaraz izanen da. Ziordiko Herriko Plazan botako dute.

ANTZERKIA




Bajo la arena antzerki taldeak obra bat eskainiko du asteburu honetan Gallipentzu eta Adios herrietan, Nafarroako Gobernuak udarako urtero antolatzen duen programazioaren barruan.

Iertetik Oltzara

Itza da Iruñerria inguratzen duten Zendeatako bat, Oltza, Zizur, Galar, eta Antsoainekin batera. Erromar garaioak, laboreak banatzeko eta biltzeko zeuden egiturak dira, gaur arte, sikiera izenez, mantendu direnak. Oltza Zendeak Ororbia du hiriburua, nolabait esateko, eta gure ibilbidea Ierteko monastegitik aterako da, iparralderago. Itza Zendeak dagoeneko. Inguera laborez beteta dago egun. Iruñerria labore zonalde garrantzitsuenetakoa baita Nafarroan. Hala ere, gaur arte iraun dute zenbait basok, eta Oltzako mendia, esate baterako, erreserba librea da, pribatua zati handi batean. Jabeek natura errespetatu eta zaintzeko konpromezua hartzen dute, eta debekatua dago ehizan aritzea.

IRUÑERRIKO MONASTEGIRIK GARRANTZITSUENA

Ierteko Monastegia Leten dago, eta beste garaietan Iruñerriko monastegirik garrantzitsuenak izan zen. 1024an, Antso Handiak eta Mumadora erregeak Albeldari eman zioten, inguruko beste eraikinekin batera. 1045an, Naxerako Gartziak Iratxeri eman zion, Monjardineko S. Estebaren truke. XIV. mendetik aurrera, monastegia-



ren beherakada dator, eta prioratoa ikuitu bihurtu zen. Desamortizazioak Ierteko ondasun guztiak deuseztatu zituen.

Hortik Letera abiatuko gara, eta herriko goiko aldetik, iparralderuntz doan bidea hartuko dugu. Hortik aurrera, trenbideko ingurutik abiatuko gara, gurutze bateraino, Aldazko jauregira. Aldatzik hegoalderuntz hartu, Ariztera daraman bidetik. Hortik, alderik alde, Oltzara abiatu behar dugu, bertatik ikusten baita. Oltza zeharkatu, eta eliza on-

dotik ateratzen den bidea hartu behar dugu, Oltzako mendiruntz.


Transiziozko zonaldea dugu hau, eta haritzen ondortik, pinudiak, arteak, ameztiak eta beste hainbeste espezie topatuko ditugu. Oltza inguruan, hain zuzen ere, Aleppo pinuren (*Pinus alepensis*) lehendabiziko basoa aukitu daiteke, iparraldetik hasita.

Hortik, mendebalderuntz, basotik atera arte, Ierteko monastegira halduko gara berriro.

ASTEKO PERTSONAIK



Mariano Carlon
Medikua



Javier Bados
Intsumisoa



Fermin Tajadura
San Antonioko Presidentea

Aurtengo Sanferminetako 'Galliko de Oro' Napardi elkarteak ematen duen saria Mariano Carlon medikuak jaso du aste honetan, uztailaren 13an. Nafarroan burutu duen lanagatik eman diote sari hau, 83 urteko mediku eta humanista honi. Emozionaturik agertu zen Carlon jauna 'Gallikoa' eta mandarria jaso zituenean. «Pozik nago sari honekin, eta hasieran ezetza eman banuen, merezi ez dudalako da», esan zuen malko artean. Juan Cruz Alli eta Alfredo Jaime bertan izan ziren Napardiren saria eman zutenean, eta pertsonai honen bizimodua goraiatu zuten. Medikuntzan lan ugari eta garrantzitsuak egiteaz gain, Santa Cecilia Orkestra eta Iruñeko Orfeoia elkartearen presidentea izan zen, eta Nafar Ateneoaren lehenengo presidentea.

Azkenean lortu du, hirugarren aldian, esaerak dioten bezala. Javier Bados Olaztik intsumisoa aste honetan sartu zuten Iruñeko kartzelan, aurretik bi saikera egin eta sartu ez bazuten ere. Lehenengo aldiz, PSOEn egoitza egin zuten ekintza bat intsumisoek, eta bertan zen Bados. Polizia hurbildu zen, eta furgoi batean eramane zituen guztiak, baina handik ordu batzuetara aske zeuden. Bigarren aldian, Nafarroako Legebiltzarrera joan ziren intsumiso batzuk. Orduan ere ez zuen lortu Bados, beste bi sartu baitzituzten kartzelan, jipoitu zuten arren. Eta hirugarren bai. Sanferminetako Intsumisoen Egunean hamaika gazte aurkeztu ziren kartzelan sartzeko, guztiak bilatze eta atxilotze agindua zutelarik. Azkenean guztiak sartu ziren kartzelan.

Mepamsa San Antonio eskubaloiko taldea desagertu egin da egun hauetan, babeslerik lortzen ez zutelako, eta, jakina da, dirua ez dagoenean, gauza gutxi egin daitezke. Uztailaren 15erako denak egina eta konponduta egon behar zuen, eta saiatu ere saiatu ziren, Miguel Sanz lehendakariordea ere aritu baitzen babeslearen bila. Azkenean, dena ezerezean geratu zen, eta desagertu da Nafarroan zegoen Eskubaloiko Ohorezko Liga Txapelketan aritzen zen talde bakarra. Fermin Tajadura presidentea aditzera eman zuen aste honetan gestio guztien porrota. «Orain plaza salduko dugu, dagoeneko hitzegin dugu Ohorezko mailako talde batzuekin, eta aterako dugun diruarekin garbi geratuko dira kontuak», zioen.

AHAZTU GABE!

TUTERako jaien aurreko egun hauetan ekitaldi ugari antolatu ditu Kultura batzordeak, jendea prestatzen hasiteko edo. Gaur ostirala, uztailak 16, Zubipeko Swin jazz taldeak kontzertu bat eskainiko du, bere ohizko abestiak plazaratuz. Bihar, berriro, musika klasikoaren turnoa izanen da, 'Akadma' Israeleko musika taldea arituko da. Tuterako Rotary Klubari esker lortu dute Ashdodeko talde hau ekartzea, nahiko ospetsua dena.

Datorren astean ere jarraituko du festen aurreko programazio honek. Astelehenetan, uztailak 19, Benito Lertxundi Orioko abeslari famatuaren kontzertua izanen da, eta hurrengo egunean Calderon de la Barca konpainiak Sebastian Junyenteren 'Hay que deshacer la casa' lana plazaratuko da.

Asteazkenean ikuskizun musikal bat prestatu dute, 'Un viaje a través de la música de Brasil' izenekoa. Antzerkia izanen da berriro ostegunean, Erriberako Teatro taldearen eskutik, Carlo Godoniren 'La Plaza' obrarekin. Amaitzeko, Kubako Ballet Nazionalea arituko da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.


IRURTZUNgo jaiak eta igandean ospatuko den Baztan-darren Biltzarra izanen dira gaurko goizean 'Zokobetailu' saioan aztertuko dituzten gaiak. Jakina denez, Euskalerrria Irratiko saio hau astelehenetik ostiralera izaten da, goizeko 10.00etan hasita. Irurtzango gaitero bat eta Xorroxin irratiako kide bat ariko dira bere herriari buruzko informazioa eskainiz.

Agralcoren isurpenei kritikak

P.U. / IRUNEA

Agralco enpresaren isurpenek kritika gogorak eragin zituzten pasa den astean Udaleko Ingurugiro Batzordean, Joseba Domblas HBko taldekoak azken udalbatzan egin zuen salaketaren ondorioz. Ez da horri buruz mintzatzen den lehendabiziko aldia, iaz Udalak zenbait neurri agindu baitzizkion enpresari isurpenei aurre egiteko. Neurri horiek bete ezean, enpresaren jardura geldiaraz zitekeela agindu zuen Udalak, baina isurpenak ez dira eten eta udal agintariek ez dute ezer egin horri buruz.

Domblasek salatu zuenez, Udalak ez dio enpresari inolako segimendurik egin, eta Candeliterako bidea azken egunotan lohiaz beteta egon dela azaldu zuen. Lohia enpresak bertan dituen putzuetatik dator, eta kirats gogorra sortzen du inguruan. Agralco enpresak badu hondakinak deuseztatzeko sistema, baina «zaharkitu eta hondaturik» dagoela azaldu zuen zinegotziak. Izan ere, egun, isurpenak tantaz tanta egin beharrean, txorrotadaka egiten da, eta bertatik igarotzen den Donejakue Bidean ere eragina izan du, zenbait erromes



Isurkin toxikoek kezka sortu dute herrian.

kexu agertu baitira kiratsa eta lohia direla eta.

HBren ustetan, enpresak ez du agindu zitzaizkion neurriak bete, eta putzuen segurtasuna edo zainketa berezia ez du paratu.

Halaber, araztegi berria paratuko ote duenentz ezkor azaldu zen azken udalbatzan aipatu taldea, eta kea ere salatu zuen, ez baita egun tximinia nagusitik ateratzen.

Tutera

Erriberako Eguna asteburu honetan

IRUNEA

Asteburu honetan ospatuko da Erriberako Eguna, bertako 23 herrien partaidetzarekin. Mintzaldiak, rock jaialdiak, entzierroak, erakusketak eta herri bazkariak osatzen dute aurtien estreineko egin den egitaraua, zortzi hilabete lanen ondotik. Aurrekontua 1,6 milioi pezetakoa da, eta bertan merinaldeko herri gehienetako taldeek hartuko dute parte.

Gaur bertan izango du hasiera egitarauak, 'Erriberako etorkizunari' buruz izango den mintzaldiarekin, Castel Ruiz Kultur Etxean, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Bertan Miguel Sainz Nafarroako lehendakariordeak eta Jose Antonio Perez Sola Tutera-ko alkateak hartuko dute parte, besteak beste. Horretaz gain, Erriberako musika banden kontzentrazioa izango da, eta rock jaialdia, Piskerra, Fe de Erratas eta Psikosis taldeekin.



SAKANAKO Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak egitarau kultural zabal eta joria antolatu du zonalde osorako, uztaila, abuztua eta iraila bitarte. Horrela, Zorrian, heldu den asteazkenean, hilak 21, 'Willow' izeneko pelikula eskeiniko da, eta abuztuak 4, 'Behiak' pelikula. Olaztin, irailak 25, 'Errekamari' izeneko antzezlan taularatuko du 'Txontxongilo' taldeak, eta 26, Kokx, Kakax, eta Kirriki pailazoaren emanaldia. Hauek irailaren 25an egonen dira Altsasun. Urdiainen, abuztuak 14, Peter Roberts izanen da, 'Imintzio' lanarekin, eta Lakuntzan, abuztuak 22, bertsolariak. Uhartarakilen, irailak 18, 'Robin Hood, lapurren erregea' izeneko pelikula eskeiniko dute, eta Ihabarren, hilak 31, 'Errekamari' izeneko lana aurkeztuko du Txontxongilo taldeak.

IZABA eta Baretous (Biarno) herrietako agintariak bildu ziren beste urtebetez Izaba gaineko Ernaz portuan, Hiru Behien Zorra ordaintzeko. Sobera ezaguna da ohitura, baina ez hainbeste behiak ez baina zaldiak zirela hasieran. Diotenez, sari honen jatorria 125. urtean dago, eraso baten ondotik, eta hanka eta kopeta zuriko hiru zaldi ordaintzeko hitza eman zen orduan.

FESTAZ FESTA

UZTARROZE

Uztailak 16, ostirala:

10.00 Dianak.
12.00 Meza.
13.30 Hamaiketakoa.
19.00 Esku pilota partidua: Alberdi II-Alberdi III Intxaurrondo eta Argañaren kontra.
20.00 Dantzaldia Zeus orkestrarekin.
00.00 Dantzaldia Zeus orkestrarekin.

Uztailak 17, larunbata

12.00 Meza.
13.00 Haurrendako jokoak.
16.30 Mus txapelketa.
19.00 Txokolatada eta moxorro dantzaldia Zeus orkestrarekin.
24.00 Zeus orkestrarekin dantzaldia.

Uztailak 18, igandea:

12.00 Meza
13.00 Kontzertua
16.30 'Llega' izeneko kalejira
18.00 Herri kirolak.
20.00 Dantzaldia Zeus orkestrarekin.
00.00 Dantzaldia Zeus orkestraren eskutik.

EZKORAZE

Uztailak 16, ostirala:

12.00 Meza eta txupinazoa.
13.30 Iruñea Band orkestraren kontzertua.
18.30 Herri-Kirolak: Saralegi anaiak.
20.30 Dantzaldia.
00.30 Dantzaldia.
Uztailak 17, larunbata:
14.00 Kalderete lehiaketa.
19.00 Otsagiko dantza taldearen emanaldia.



20.30 Dantzaldia.

00.00 Dantzaldia.

Uztailak 18, igandea:

13.00 Futbito partidua.
13.30 Iruñea Band taldearen kontzertua.
18.30 Los Pamplonicas taldearen jotak.
20.30 Dantzaldia.
00.00 Dantzaldia.

ITURMENDI

Uztailak 16, ostirala:

12.00 Meza
18.00 Pilota partidua: Senar-Mariezkurrena I Sanz-Satrustegiren kontra. 22.00 Zezensuzkoa.
20.00 Skana taldearekin dantzaldia.
00.00 Skana taldearekin dantzaldia.

Uztailak 17, larunbata:

12.00 Herri-Kirolak.

19.00 Gazteendako txirindularitza lasterketa.

19.30 Sardinak herriko plazan.

20.00 Dantzaldia Skana taldearekin.

00.00 Dantzaldia Skana taldearekin.

Uztailak 18, igandea:

10.00 Santa Marina ermitara erromeria.
12.00 Meza.
12.30 Bazkari herrikoia. 18.00 Herri jaitsiera. Elordin azkaria.
20.00 Alaska taldearekin dantzaldia.
00.00 Alaska taldearekin dantzaldia.

IRURTZUN

Uztailak 16, ostirala:

18.00 Txupinazoa.
20.00 Orritz dantza taldearen emanaldia.
22.30 Zezensuzkoa.
01.00 'Drindots' taldearekin dantzaldia.

Uztailak 17, larunbata:

13.00 Herri-Kirolak.
17.00 Igeri lehiaketa.
19.00 Kalejira.
20.30 Dantzaldia Jator taldearekin.
22.30 Zezensuzkoa.
24.00 Rock jaialdia.

Uztailak 18, igandea:

11.00 Meza.
11.30 Erraldoi konpartsen kalejira.
16.30 Iruztzungo pilota txapelketaren finala.
20.30 Inguma taldearekin dantzaldia.
22.30 Su artifizialak.
01.30 Inguma taldearekin dantzaldia.



LUZAIDEKO bizilagunek alkateak mehatxatuak bota izana salatu berri dute, Ibañetako gainaren inguruan egin behar den hotel bati buruz herrian dagoen auzia dela eta. Hotelarako komunalak saldu zizkion udalak alkatearen semeari, eta horrek haserre bizia sortu zuen herriko zenbaiten artean. Hori dela eta, Nafarroako Epaitegi Administrazioaren aurrean errekurtsioa paratu zuten erabakiaren aurka, eta horrek alkatearen haserre eta mehatxuak sortu dituela diote bizilagunek. Hauen arabera, hotelaren kontra sinatu zutenen denda eta negozioak arreta handiz ikertzen ari da udala.

(IGUZKITA) MUNIANgo UPNko parlamentari batek herriko frontoia garia lehertzeko erabiltzen duela salatu du bertako bizilagun batek. Amadeo Sanchez de Muniain parlamentariak azaldu zuenez, alkatearen baimena zuen horretarako, baina bizilagunek horri buruz ezohizko udalbatza egitea eskatu zioten udalari.

Bukatu dira, eta orain uda patxadaz hartzeko garaia da. Festa lasaiak izan dira aurtengo Sanferminak, eta ohi baino jende gutxiago ibili da hirian. Azken urteotako joera hala izan da, baina aurten bereziki sumatu da. Entzierroetan, ordea, gero eta jende gehiago biltzen da, eta zenbait neurriak hartu behar direla azpimarratu dute dagoeneko.



Uda patxadaz hartzeko garaia da festetan dena emanda aritu direnendako.

JOXE LACALLE

Sanfermin lasaiak

HOBERENA

Iskanbila gutxi eta giro lasaia azpimarratu da nonnahi, eta sumatu da festen ibilbide normala. Beste urtetan festen aurretik berotzen zen giroa, Udaren eta zenbait talderen arteko harreman txarrak zirela eta, baina aurten, zenbait erabakirik kontrarik iragartzen bazuten ere, lasai hasi ginen hilaren 6an. Inoiz baino gatazka gutxiago izan da kaleetan, eta Gobernu Zibilararen datuen arabera, delituak ere gutxi eta munta gutxiago izan dira. Festa baketsuak, alegia.

Ohizko tabernez eta inguruez —Jarauta, barrakak, Estafeta, San Gregorio eta abar— gain, giro aparta izan da ezkutuago dauden beste tokietan ere, eta merezimenduzko ohorea egin nahi diegu hemen. Ohizkoa bada ere, meritu handia dauka Zaldiko Maldiko tabernak, 'bezero' iraunkorrek inon baino gehiago gordetzea lortu baitu. Musika ona, bokata goxoak, *mojito* beti prest —ez beste hainbestetan bezala!—, koadrila frankok eman dituzte bertatik atera gabe Sanferminetako ordurik luzeenak. Descalzos kaleak ere bere protagonismoa hartu du, Jarautaren nagusitasuna apur bat leuntzeko. Ondokoan baina milaka pertsona gutxiago, ibil zitekeen hortik barna, eta zenbait tabernatan kanpoaldera paratutako bozgorailuen bidez, kalean dantzatzeko aukera eta guzti bazegoen. Ederra, alegia. Halaber, Gazteluko Plazako tabernetan —balkoia

daukatenetan—, giro polita izan da nagusi, ikusmira ederra eskaintzeaz aparte. Giroa alturretatik. Azkenik Navarrerria kaleko mesonean ia Parte Zahar osoan ezin aurki zitekeen kafea eskaintzeko detailea izan dute, eta horregatik txoko honetan agertzeko merezimendua irabazi dute.

Udaltzaingoaren presioa lehendabiziko egunetan gogor samarra izan bazen ere, bakean utzi dituzte azkenean kale saltzaileak, eta alkatearen agintea izanik ere, nahiko tolerantzia handia erakutsi dute. Parte Zaharreko kaleetan kokatzen diren herri guztietako saltzaileek giroa eta kolorea ematen diete festeei, beraizendako bizimodua izateaz gain. Tolerantzia pixka batek asko lagun dezake kasu hauetan, eta Udaltzaingoa bide horretatik jotzea eskertzekoa da.

Giro desberdinak finkatu dira —azken urteotan bezala— toki ezberdinetan, eta horrek asko aniztu ditu aukerak. Antoniutti ingurua berbenak eta afari lasai eta itxurosoendako toki bihurtu da —ikustekoa da paellak eta oilaskoak erakartzen duten jendetza, nola egiten duten ikusteko, sikiera—, eta Gazteluko Plazak betiko musika bereganatu du eta helduen gauak bertan izan du bere lekua. Burgoen Plaza salsak menderatu du, nahiz eta iazko maila ez den izan talde aldetik, eta Jarautak, Navarrerriak eta Parte Zaharrak, oro har, peñena. Jende guztietarako giroa, alegia.

TXARRENA

Entzierroetako jende pilaketak arazo ugari sortu zituen asteburuan, inoiz baino gehiago. Inork ez zituen gogoratzen Estafeta er-

dian jende pilak, eta izan ziren, arriskutsuak gainera. Unaiiek garbi hitz egin zuten orduan: «hau ez da entzierro bat izan,

infernua baizik». Garbi dago zerbait egin behar dela, baina bideaz da hain erreza. Suziria bota baino lehen udaltzainek egiten duten errepasoan jendea ateraztea ez da nahikoa, bistan da, eta zezenen aurrean korrika egitea, batzutan, arriskutsuegia da, ez hainbeste zezenengatik korrikariengatik baizik. «Hildakoren bat beharko genuke neurriak hartzen hasteko», zioten batzuek, baina hori baino lehenago zerbait egin behar da.

Jende gutxiago dabil urtetik urtera Iruñean, eta aurten ere sumatu da. Asteburuko ohizko pilaketak kenduta, lasai-lasai ibil daiteke egunean zehar hiri osoan, eta hori batzuekako pozgarria eta estimatzekoa bada ere, barraketan, kasu, sumatu dute eragina, eta bilduko den diru kopuruaren aldetik kezkatuta agertu dira zenbait arduradun. Asmo eta itxaropen asko paratzen dira beti egun hauetan, talde askoren urteko laguntzarik handiena baita, baina aurten inoiz baino txikiagoa izan daiteke. Parte Zaharretik urrunegi, akaso?

Zezenek kritika ugari jaso dituzte aurten, txarrak eta mantsok izan baitira orokorrean. Entzierroetan batzutan arriskutsuak, zezen plazan ez dute animorik erakutsi, eta zenbait zezenketa penagarria izan dira. Adituek diotenez, gaitz orokorra da eta aspalditik dator, baina aurtengoak ohi baino kaskarra- goak izan dira.



Peñak, beti bezala, protagonistak.

JESUS DIGES (EFE)

SOPHIE, banbolina

Si quieres que el dolor no desespere tus amorosas ansias, no tengas más que amor, pero no quieras ni esperes nunca nada.
Jose Bergamin

● «Bakantza kontua konpondu duka engoitik?», galdegin zidan telefonoz Sophie. «Ba, ba!», ihardetsi nion. «Hamabortz egun eman zidanate. Beraz, zehaztu egunean joanen ahalko gitun!», «Biziki ontsa! Mixelek ere hartu ditik». Aspaldi hartan ibiltzen zen mutilaz ari zitzaidan. «Eta Joseph?», Bertze bat zuen —hamai-katxo ez bazuen ere— «Ez, tama-lez. Ez duk etorriko ahalko: Bre-tainako ohaikideak harat gonbi-datu dik; bere almeja enea baino gogozkoago bide». «Bo», baizik ez nuen erran bai bainekin hiru-rokin —gogo, berea— birekin baino nahiago zuela.

Uda genuen, biluztero. Sophie aski beltzaran zen zegokion bertze oporraldi batean eguraldiak gogor jo baitzuen. Jator, aski ere nuen neska udan bere gogora senditzen baitzen: alai eta larrugorri. Ni ordea, xuri nengoén eta Mixel, era beran.

«Ez arduratu: ahogarri dudararik, arnasa doi doia hartuko dun». «Hala espero! Bi astetan ari nun zangarteko zulotan protariko tramankuluan sartzen hirea eta be-rarena hobe zirrista daitezen. Di-tudan zuloak, motel! Orai berean preziso diat horietako bat uzkiaren baitan, soinean deus gabe ta sofán etzanik nagoelarik. Zer irudi-tzen?». «Mmm!... Istimatzeko ahalegina dun hori. Oporretan zuloño horien zabalagotzen gogo ederretik lagunduko!» «Polliki! Dardaragailuak joanen ditiat aldean. Joan hik hireak ere; eta jan-tzirik duana ontsa begira...! Ene, zakil andana bat esku tartean!...»

Pozarren zegoen.

Sophie *amorante-ohia* nuen, nolabait erran; nolabait erran, ze-ren biziki amoratzen bainuen —berak erran eta burutua: «Ez niagok gustora bikote gisa, Jean Pierre; dena den, biziki haut maite, eta maiteko areago agian»—. Erran eta bete egin zuen: bihara-munean deitu ninduen eta biok ahizpa-koinatuendako eguberri-oparia erosi genuen. Handik goiti, kasu handiagoea egin zidan, nahi-ago ukan ninduen eta hobe maitatu ezen ez 'ateratzen' ari ginen bitar-te luze hartan —zazpi urtez ote?—. Ni hastapenetan gaizki sendi nintzen: biharamun goizean, euskaltegitik atera, lainoa zela eta palestinarra leporatu eta, atzera bidean, ondoko ikastolako jolas-lekuan bakarrik ari zen ume bat ikusi nuen: arras tristatu nintzen haurtzaroko ohizko bakardade sentimentuak itsuski jo bainin-duen.

Maitatu ere, biziki maitatu nau Sophie aspaldi honetako tarte gu-zian —zakilaren kaskoa mindu samarturik daukat oraino, azke-neko aldian hain fier horzkatu zi-dan—. «Txotxo! Beti ukanen haut

enetako puto, *bihozñoko putoño!*». Iazko bedatsean mutil bat ezagutu —beste putoño bat— eta berarekin ibiltzen hasi zen. «Hitaz landa, gizagaldurik gal-duena. Ordaindu ere egiten zioat eta gero askaltzerat joaten gaituk. Kontu horrek biziki nin narrita-tzen, laztana», erran zidan marran-tak jota ohetzean astebetea eman nuen batean bisitatzerat etorri zi-tzaidalarik. «Bai biziosa!» «Arras pozten nik halako mutilak hain eskuragarri izateak. Mutil polliak hain eskuragarriak, ezin hobeak gozatzeko!» Batzutan, hiruok el-kartzen ginen. Bertze bat ere —gerora ezagutu zuen—, baina azken honekin gutiagotan aritzen zen lan ordutegia pareko ez zute-lakoz. Aurtengo udan, oporretarat joateko proposatu zidan: «Josephi ere erranen zioat». Neuri zidan lehendabizi erran *betikoa* bainin-tzen, eta «Zer arrairo, gero? Goa-zeman!» bada, oporretarat. Ego-er Sophie biziki gustatzen zi-tzaion gogoko bi mutilekin bai-tzihoan musuka eta zirrika aritze-rat, eguzki galdatan berriz titihas jostatu, irakurri, igeri egin eta lo nagian edo denbora-pasako hus-keriatan egoterat. Nik berarekin bakarrik nahiago, baina maite nin-duenez, *lizunki ere* maite nindue-

ratu baikeuen. Hirugarren egu-nean, Sophie joan zen eta gogoan Mixelen eta bion arteko ustezko likistaldia bazerabilen ere, iduri-menezko kontu baizik ez zuen ukan. Zena zen, arturratu eta be-rehalako ihardunaldiak ez ziren hoberenak; hoberenak, eguzki galdatan aritu ondoan aparta-menduratu eta dutxatu bitartekoan izaten genituenak ziren —bo, bi-tartekoak edo ondokoak: kristo-renak; Sophie biokin nahikara— mutilon uzkiean hatzen baten sar-tzea biziki zitzaion lakot —eta be-te-betean izorratzeko gogo a zeu-kan, nik berak izorratua izateko ainakoxea, hain zuzen ere. Hiru-rok kurritu —batzutan ni ez nin-tzen—, otordua egin eta bertze kontuak: zela siesta, zela terrazan luze-luze emaniko irakurraldia —Sophie eta biok ia deus soi-nean (edo deus gabe halaxe atse-ginago zitzaigun bakoitzean) egi-ten ohi genuen; total, hirugarren oina zen eta *the vecinitas* gazte ziren, jator antzean—, zela itzal-peko pasealdia, zela zelakoa. Zo-rienez, ederki moldatzen ginen hirurok: ustekabeko kontu go-goangarriak, gogoangarri.

Sophie orai ez dugu artean: Bosnia Hertzegovinarat joana zai-gu. Oporraldien ondoan biziki

zoriontsu sendi, beltzarenago, polliago zen eta alde egin zuen nazioarteko elkartasun proiektu bati atxikiz. «Ez ziakit», hasi zi-tzagun. «Bildur nuk...», «konfin-dantzarik badun, ez dunala zertaz beldurtu behar izanen ohar-tuko haiz». Elkarr so-so, isilik gelditu ginen une batez. A, begiak zeinen galanki! Arrairoak! «Hantxe nau-zue izanen! Eta xahu, nahi duzuen bezala; xahu itzultzeko!» Ene! Bere itzuli beharrak biziki nin-duen berotu, hain gordin erran zi-gun gorriagotu ezpain *gordin* haien artetik —bere puta eite na-rritagarria— «Ño! Ederra alde egin beharra!» «Xo!... Urtebete-ren buruan, bakantzatato eguzki galdatan larrugorri zirrika berriro ere!...»

Horixe xorro-bero laguntzailea, Sophie! Horixe idealista! Gogoz-koa, istudiante maitea! «Tamaina horretaraino ez huke heure burua ekarri beharko... Maite hau... Maite haugu! Bai! Maite hau-gu...!» Ez nintzen trebe bere joa-tearen jasatera. Baina ohar-tu nintzen maite banuen behar nuelakoz baldin bazen ez nuela orduan be-rekiko maitasunik behartasuna baizik, eta behar banuen, errepri-mitzen noiz nahi ahal nuela, tabu handienerat jotzen ahal nuela, ale-gia, bertze batzurekin ohatzera-tzen bazen ni min, jeloskor eta gi-sako nintzatekeela, eta gisakorik ez sekulakoz ahal banuen, bede-ren, ezen gogozko neskaxa gu-ziak libro, bere eskuko nahi ditut xera likits ahalik eta likitsen die-dalarik. «Goza eta gozaraz, zeure buruari nahiz bertzeenari minik eman gabe: hauxe da, nere iduriko, moral osoa», izkiriatu zuen orain berrehun bat urte Chamfort fran-tses antzerkigileak. Polliki deri-tzat honelako jokabideari.

«Izate osoan nauzue ailar, biri-bila ohatzean, harrigarri ona nai-zela erraten didazue... on-aurki gu-zia, ezta? Bada, guzi honengatik eta oraino zuek izorratzeko tarte luze andana bat oraino ere falta zaidanaz, bihurtu eginen nuk ur-tebete buruan, eta ezinago eder izanen nauzue. Baina, orai, Balka-neterat niaiek nagusi horien egoi-tza malapartatu horretarat on beharrean. Beraz, lagunok biziki goza gainerako neskez neronek ontsa izorratu zakil horien baitan deuseta-rako sustan-tziarik ez gel-ditu artio!».

Bai hedonis-ta, Sophie! Bat-zuri mendia-ren kaskorat doi doia arri-batu orduko luzeluze etzate hori izugarri gustatzen zaien era be-rean, Sophiari solidaritatearen baitako lan eta neke mordoaren ondoko izigarriko egoera *orgiasti-koa* gustatzen zitzaion arras. «Urtebetea neketan eta gero, auskalo noiz artio putetan putena izaki lar-rutan. Biziki ontsa!».

Urtebeterako asmoa du. Gogoa izigarri diot. Izigarri ere. Izkiria-tzen didalarik, testu likitsak igor-tzen dizkit —berak ainako halako testu gordinik nehorik ez dit egun-daino helarazi—, baita emazteki preso bortxatu zenbaiten istoria lazgarriak. A, bortxatzaileak, li-zunzaleon etsai handienetarikoak! «Zinez, likits eta izorratzaile iza-teko gogoa kendu zideate halaxo-xe... halakoxe zinezko zerrikeriak eta gizonexkoak arbuaitu egin ni-tian; baina, zuek gogorat ekarri eta...» Zorionez, bera xahu dut, ez dute ez zauritu ez bortxatu ere. Xahu genuen, eta izkiriatzeko tarte bat edo bertze izanez. Nik itxura oneko deusik izkiriartzen ez daki-danez, erosi aldizkariak igortzen dizkiot —edo aldizkari osoa ez, atsegin dituen argazki kilikaga-rienak baizik (eta gainerakoak kartoiuntziatarat)—. Bilduma ederra duke, igortzen ez bait omen nau bakarra.

Panpoxa, Sophie; *banbolina*, 'Lady Beware' deritzan pelikulan aita bereburu bizi den alaba ba-karrari (Diana Lana aktorea) erraten dionari gogoan atxikiz.

Sophie maitea, oraino ere sobe-ra ontsa konprenitzen ez dudana. Begira hadi, potxola, gozatzeko kontu berriak ikasi ditut eta. «Ene nahi osoa ideal bati buruz xutik dago —erraten du Piarres Ain-tzartek bere *Biziaren bazterrean* izeneko egunkarian—; alta, enea-ren berri biziki ontsa daukazue zuek: zuen gisako zakiltzutekiko arnasestuak hartateko eskarmen-tuaren baitan izan eta; bertzela erran: ihardun elkarkorraren on-doko izorraldi osoa neure buruak bere buruari sari gisara emana edo».

Biba zü!



nez, konformatu eta bera senetik ateratzeko ainako izorraldiez goza nezan. Eta ez zeukan zertan kez-katurik halakoxe asmoa baineu-kan, eduki, gogotik.

Bakantzetako apartamenduan hironaka egiten genuen lo. Lehen-dabiziko goizean nerai nintzen goiz jaiki eta egunkari-aldizkari-ekin bila nindoalarik, mutila lla-guntzari gaineratu, titiei atxiki eta izo-rraldi ederra ddastatu zuten elka-rra itsatsirik; intziriz intziri izerdi-tan blai berehalaxe izanen zirenez, geroxeago bertze gozaldi sotila, gogo-eragingarriago: dutxa, ale-gia. Ni —halakoxea susmatzen nuen— beranduxeagoko ailegatu nintzen, esku hutsik ez artean ero-siriko aldizkari pornoa begizta-tzen izan nintzelako. Arribatu eta biak hankaz goiti topatu nuen: izerdiz gainezkako larrugorritas-un lerdetsuan, likiskeriazko eginbideak ximenki beteak, bai eiki. Kilikagarria, egoera!

Hurrengo goizean ere neroni joan nintzen kontu hark biziki ki-likatzen baininduen, baina hu-rrengoan mutilari zegokion bez-peran txandaka jaikitzea delibe-

Gazteendako Zokoa



XAKEAN



Nafarroako banakako xake txapelketaren 7. jardunaldiko partida, 1993ko martxoaren 6an jokatu. Javier Redin (1.870 ELOkoa), Javier Otazuren (1.920 ELOkoa) aurka.

1.e4, c5; 2.Zf3, Zc6; 3.d4, d4; 4.Zd4, Zf6; 5.Zc3, e5. Zalantzakoa, damaren peoia ahul geratzen delako. 6.dZ-b5, d6; 7.Ag5, a6; 8.Za3, Ae7; 9.Af6, f6; 10.Zd5. Lauki honek (d5) indarra ematen die txuriei. 10.... b5; 11.Ad3, 0-0. Momentuak ez dirudi egokiena, 'e7'ko alfila itxita dagoelako. 12.Dh5, f5; 13.f5, f6; 14.c3, Gf7; 15.Ae4, Ab7; 16.Zc2, Gg7; 17.cZ-e3, Gc8; 18.Gd1, a5; 19.Zg4, b4; 20.Gd3, Za7. Itsukeria dugu hemen. Arriskua bestaldean dago, eta beltzak ez dira bizpahiru jokalditan horretaz jabetu. 21.Zh6, Ef8; 22.Gg3, c3; 23.Df7 xa. Jokatzeari uzten diote beltzek, 'Gg8' mate jokaldia dela eta.

Bertsokak

Baionako txori bati haur batek kaiolako atea ireki dio gaur goizean...

Ailegatu zait zoriona ta betiko askatasuna haur bat hurbildu atea ireki hau da nire zoriona banuen uste bizi osoan han zela etorkizuna gaur goizaldean heldu zait niri zorioneko eguna

Orain ahal badut jatera noa zerbait ona afaltzera eta ondoren ahal badut behintzat hegaldi luze batera nire modura dauden txoriak lehiotan bisitatzen Euskal Herria ezagutzera anaiak askatutza

Itxaso Aleman

Jenero Xumekoak

Arratsaldeko zortziak

Joan den hilabetean ordu honetan gaua zen, nik oinak bustirik neramatzen eta Bakardadea zuen izena. Orain, berriz, ilunabarra epel-epela da, birra bana eskatu ditut, Asun du izena, Biotika Errobotika ikasten du Deustownen eta Tom Waits giraka ari da diskagailuan, gizakien zoria bezala.

JEREMIAS ERRO

New Yorkera bidaia

IZASKUN BIZKARRONDO

Larunbateko arratsalde aspergarria bat da, bapatean telefonoa entzuten dut, hartu egiten dut eta pertsona batek esaten dit galdera bat erantzuten baldin banuen New Yorkera bidaia bat irabaz neza-keela. Berak galdera egin eta nik ondo erantzun nuen. Hurrengo egunean aireportuan nintzen maletekin, New Yorkera nioan. Ezin zuen sinestu, nik beti amets egin dudana bidaia. Hotelerak ailegatu nintzen. Boston hotelerak, inoiz ez nuen halako hotel bat ikusi. Lurra alfonbraz beteta zegoen, eta sabaiatik zintzilik zegoen lanpara ikaragarri bat, dena kristalez beteta.

Hotelean sartu nintzenean mutiko gazte bat etorri zen eta maletak hartu zizkidan. Orduan nere logelara eraman ninduen, bostgarren pisuan zegoen. Ni lilurata gelditu nintzen, orduan telefonoaren txirrina entzun nuen. Mutil gazte baten ahotsa zen. Berak esan zidan nere gidaria izan behar zuela asteburu hartan eta hoteleko kafetegian elkartuko gi-

nela. Orduan nik esan nion ea nola jakingo nuen nor zen bera, eta berak esan zidan txaketa gorri bat zeramala.


Kafetegiraino jeitsi nintzen eta han ikusi nuen mutiko bat txaketa gorriarekin. Orduan hiria ezagutzera eraman ninduen. Lehendabiziz Askatasunaren Estatua ikusi genuen, eta gero New Yorkeko auzorik pobreenak. Ni oso triste jarri nintzen halako pobretasuna ikusi nuenean. Jende pila kalean bizi zen eta jantzi zakar batzuk eramaten zituen. Gero New Yorkeko auzo aberatsak ikusi genituen. Hemen, beste auzoekin konparatuz, alderantzizko gauza gertatzen zen. Jendea etxe handietan bizi zen eta ongi jantzita zegoen. Ondoren kafetegi batera joan ginen, eta han New Yorkeko janari famatuena jan nuen: 'hot dogs' izenekoak, eta oso goxoa iruditu zitzaizkidan.

Gero etorbide luze batzuetan ibili ginen, nahiz eta nik pentsatzen nuen hori bakarrik pelikuletan gertatzen zela. Sea Point parkera joan ginen ondoren, eta ban-

ku batean eseri ginen. Ordu bat egon ginen han eserita, eta nik Euskal Herriari buruz hitz egin nion mutikoari.

Hurrengo goizean goizeko hamarretan atean jo zuten. Josh zen, nere gidaria. Eskuetan oparitxo bat zekarren, eta neretzat zen. Ireki egin nuen eta kutxaren barruan diamantezko idunekoa bat zegoen. Bera oso triste zegoen arratsalde hartan nik Euskal Herrira itzuli behar nuelako, eta goiz hartan denda batzuetara joan ginen, nik opari batzuk erosi nahi nituelako.

Arratsalde heldu zen eta Joshek aireportura eraman ninduen. Bertan eskatu nion oportetean Euskal Herrira bizitaz etortzeko, baina berak ezingo zuela erantzun zidan, eta idatziko zidala hitz eman zidan. Agurtu egin genion elkarri eta ni hegazkinera igo nintzen. Gaueko bederatzietan etxera ailegatu nintzen, eta nire familia guztia itxaron ari zen. Opariak banatzen hasi nintzen eta gero han ikusi eta egin nuen guztia kontatzen hasi nintzen. Eta denak ahoa zabalik gelditu ziren.



KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Behoko taula osatu ondoren Leitza jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Une honetan
2. Urte berean sortua
3. Oinazeak
4. Ez du ikusten
5. Guri, du

A	1	B	3	D	5	B		
B	9	D	1	B	6	D	9	
D	6	B	8	D	2	A	3	A
A	5	A	8	A	2	B	2	B
A	7	D	7	D	8	A	4	D

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
A									
B									
D									

N-84



El Carrascal

Iruñeritik ateratzeko bada, hegoaldean, ate zabala. *El Carrascalez* ari gara noski. Pasabide naturala izan da betidanik. XIX. mendean, gainera, horko artadiak karlisten babeslekua izan ziren. Gerrek ekarritako miseriatik alde egiteko artadi joriak erabat hustiatu ziren eta gaur egun azken arteak Alaizko aldapetan eta han eta hemen sakabanatutako moltsuetan ikusten ditugu. Izena utzi digute *El Carrascal*. *Carrasca* hitzak 'arte' esan nahi du, *Quercus ilex* zehatzago esateko. XIX. mendean, arteekin batera, euskara ere itzali zen alderdi horietan. Baina euskaldunak ziren artean, zer izen eman zioten aieka estratejiko honi?

Ezin esan *El Carrascal* berriki asmatutako izena denik. Ongi dokumentatua dago 1748. urtetik aurrera. Baina euskarazko izena ere bada. Horren berri izateko, gainera, ez dugu paper zaharretara jo behar. Tuter aldera goazela *El Carrascal*en bertan den herri baten izenari begiratuko bagenio erantzuna lortuko genuke. Hor dago *Muruarte de Reta*. Tamalez gaurko forma ofizialak modu itsusian iluntzen du izen eder bat. Euskara arrotza zuen norbaitek erderazko *de* besterik ez zuen ikusi. Horrela *Muru-Arte*derreta zena *desitxuratu* zen. Bertakoek *Muru* diote, ez *Muruarte*, herriaren izena erabili behar dutenean.

*Arte*derreta, hona hemen *El Carrascal*en kide euskalduna. *Arte+eder+eta*. Izen hau ere maiz agertzen da dokumentazio zaharrean. Baita bertan gurtzen den Andre Dona Mariari itsatsita: *Nuestra Señora de Arte*derreta. Nafarroako Gobernuak berriki, nahitaez, *El Carrascal* izena hobetsi du. Gaur egun erdaldunen eta euskaldunen artean besterik erabiltzen ez delako. Beraz, izen hori euskaraz ere erabili beharko genuke. Nafarroan, printzipioz, para-jeek izen bakarra dutelako.

Oraintxe esandakoa norbaiti astakeria irudituko zaio. Zergatik *El Carrascal*, *Arte*derreta begi bistan dugunean? Ni ez naiz nor inori izenik galerazteko baina aitortu behar da lekuizenak ere hiltzen direla eta ondorioz ezin direla bapatean hilobitik atera eta plaza erdira eraman dantzan hasteko. Badakit, hala ere, euskaldunek maite dituztela horrelako dantza-kideak. Harritzekoa ere ez da, dantzaria benetan ederra delako. Ene ustez *Arte*derretan *kateak* behar dira esatea traba handia da euskaldunarentzat. *El Carrascal*en *kateak* behar dira berriz garbia oso. Ez nuke izena enterratu nahi pixka bat eguratu ondoren. Bai aldiz gogoratzea komunikatzeko tresna behar dugula eta lekuizenek funtzio horretan lagundu behar dutela. Azken hitza hiltzunez dute.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

Baztandarren Biltzarren 30. edizioa ospatuko da bihar, larunbata, eta etzi, igandea, Elizondon, 'Euskarak batzen gaitu' lemapean. Urtero bezala, bailara honetako herri guzietako orga apain-

duak izanen dira protagonistak igandean, baina gaur bertan, Arizkunenean, urte guzi hauetako erakusketa zabalduko da, argazki, artikulua eta bitxikeria franko-ekin.

Udalak kanpina nahi du

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Baztango Udalak lehen mailako kanpina eraikitzeak asmoa aurkeztu du aste honetan Elizondon, azpiegitura turistiko indartu eta bultzatzeko egiten ari den ahalegin bereziaren barruan. Kanpin honek 400 toki izanen ditu, eta Merkatzelaian egonen da, Elizondon bertan, Udalare-

garatu». Bere ustetan, zonaldera industriak etorri gero, Bidasoa aldera joanen lirateke, bertan dagoen azpiegitura dela eta. «Horregatik, nekazaritza, abeltzantza eta turismoan zentratu behar ditugu gure ahaleginak».

Pedro Perez Uritz zinegotzia eta Bertizko Partzuergo turistikoaren presidentea denak, bere adetik, kanpinaren garrantzia



JOXE LACALLE

nak diren lurretan. Asmoa posible egiteko frantziskotarren ikastetxe zaharra erabiliko da Udalaren lurren truke, horren gainean erosteko aukera baitauka. Udal ordezkariak prentsaurrekoan azaldu zuten, igeritokiak, teniserako pistak, golfa eta beste zerbitzuak eskeiniko ditu kanpinak.

Proiektua aurrera eramateko, etxe agentziekin hitzarmena egiteko, lehiaketarako deia egiten du Udalak. Hitzarmena lortuz gero, enpresak eraikiko lituzke kanpina eta zerbitzu guztiak, eta horren truke frantziskotarren eraikina erosteko opzioa emango lioke Udalak, bertan etxebizitzak eraikitzeak eta bera geldituko litzateke kanpinarekin. Udaleko ordezkariak azaldu zuten, operazioa «garbia, interesgarria eta arriskurik gabekoa» izanen litzateke, eta horren bidez zonaldean premia handiko azpiegitura bat eskuratuko litzateke. «Ezin dugu esan turismoaren alde gaudela» azaldu zuen Patxi Oiarzabal alkateak, «eta gero behar diren azpiegitura eta baliabideak ez

azpimarratu zuen. «Udalak orain arte ezezaguna den azpiegitura bat eskuratuko luke, eta horrela erantzuna emanen genioke gero eta ugariagoa den turismo mota bati». Halaber, kanpinak asteburu osorako turismo iraunkorra eskeiniko lukeela azaldu zuen zinegotziak, proiektuaren garapenaren bidez sortuko liratekeen etxebizitzekin.

A.B. / IRUNEA

Urtero bezala, Baztango kultura eta gizartearen barruan nabarmendu dena omenduko du heldu den igandean Baztandarren Biltzarra, eta Xorroxin Irratia aukeratu dute horretarako, «euskara, euskal kultura eta Baztanen alde egin duen lana handiarengatik». Izan ere, ez baita makala Iruritan egoitza duen irratiaren marka: 12 urte dagoeneko Baztango uhinetan. «Asko poztu gaitu gu omentzeak», azaldu du



Orga apainduak berriro beteko dituzte Elizondoko karrikak.

JOXE LACALLE

Xorroxin Irratiari omenaldia

Joseba Igarabide irratiok, «gehienetan bertakoek ez baitute estimatzen inguruko besteek egiten duten lana. Horregatik, Baztanen bertan gure lana estimatzeak poz handia ematen digu, eta bihotz-bihotzez eskertzen dugu omenaldia».

Urte guzti hauetan, hasieran irrati xume eta asmo handirik gabekoa zenak Baztango irrati izatea lortu du, eta hori izanen da, hain zuzen ere, omenaldiaren arrazoirik nagusia. Baztandarren Biltzarren antolatzaileek aipa-

tzen ziguten lan egiteko gogo falta ere sumatua dute irratiaren baina beraiek behar duten laguntza —pasiboa— jaso, jaso egiten dutela dio Josebak. «Guk egiten dugun lanean ez dugu, festa antolatzean ez bezala, jende aunitzen beharra, baina jendearen moteltasuna, oro har, badago. Aspaldiko kontua da, eta, adibidez, karrozekin ez da sortzen lehen adina. Hala ere, belaunaldi berriak hartuko du erreleboa, nik behintzat itxaropena badut». Aurten ere, azken urteotan beza-

la, zuzenean emanen du festaren nondik norakoa Xorroxinek, giroaren kontakizuna, elkarriketak eta abar.

Egun Baztango Udalaren erabakiaren zain dago, bestalde, irratiaren udal lizentzia modu iraunkorrez aprobetxatzeko. Urtetik urtera luzatu dute hitzarmena orain arte, baina irratiak hamar urterako nahi du, eta horretarako egitasmoa aurkeztu zuen Udalean. Honen erabakia etorri bitartean, egunez egun jarraitzen du Xorroxinek, hasieran bezala.

Idoia Maiz

kazetaria

«Txinan ez dute kanpotarrik onartzen»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Aurtengo otsailean abiatu zen Txinara, Naijing-era. Hiri txiki samar horretan, nahiz eta 4,5 milioi pertsona inguru bizi, gaztelania irakasten aritu da hango unibertsitatean bost hilabetez. Txinera ikasteko arazo handirik ez zuela izan dio, «uste baino askoz errezagoa baita», baina gehien harritu duena atzeritarrekin duten jarrera izan da: «txinatarrak atzeritarra arbuiazen du».

EGUNKARIA.— Nolakoa izan da txinatarrarekin izan duzun harremana?

IDOIA MAIZ.— Oso eskasa, erabateko bereizketa baitago txinatarraren eta atzeritarren artean. Txinatarrak ez zaie interesatzen guk jakin dezagun zer gertatzen den bertan, eta haste-hastetik jartzen dizute horma bat tartean. Oso diplomatikoak dira, eta nekez jakin ahal da zer pentsatzen ari diren, baina txinatarrak, berez, arbuia egiten du atzeritarra, eta oso zaila da lagunak egitea. Adibidez, oso gaizki ikusita daude txinatarraren eta atzeritarren arteko bikoteak, eta normalean arazoak izaten dituzte.

EGUNKARIA.— Eta Unibertsitatean ez da horren kontrako erantzunik sumatzen?

MAIZ.— Unibertsitatean izugarritzko kontrola dago atzeritarrekin, eta jasotzen ditugun eskutitzak ireki eta irakurri egiten dituzte. Beraiek ere oso egoera txarrean daude. Adibidez, Beijineko Unibertsitatean egon nintzen —Tiananmeneko istiluak hasi zituen unibertsitatean, alegia—, eta zanpatuak dauzkate. Polizia pila dago, eta ikasleak hamarretik gorako taldetan biltzen badira, nahiz eta eskubaloian jokatzeko izan, sakabanatu egiten dituzte. Tiananmenen parte hartu zuten lagun batzuei galdetu nien ger-

tatutakoari buruz eta Gobernuaren erantzuna izugarri bortitza izan zela erantzun zidaten, ez zutela espero. Orain, txinatarrak politika ahaztu du, eta soilik diruaz kezkatzen da.

EGUNKARIA.— Beraz, zer gertatu da Tiananmenen ibili zirenekin?

MAIZ.— Gehienak gartzelan daude, eta asko hilda. Batzuek alde egin zuten, eta geratzen direnak oso kontrolatuta daude. Orduan, txinatarrak zer esaten dute?: «Hemen ezin da ahoa ere ireki. Beraz, zer egingo dut? diru bila, eta kitto». Kapitalismo bortitza sartzen ari da orain.

EGUNKARIA.— Bertan egonda, ba al dago benetan gertatzen dena ezagutzeko aukerarik, prentsa ofizialean ateratzen denaz aparte?

MAIZ.— Oso zaila da, traba handiak paratzen baitizkizute. Nere lagun bat saiatu zen Espainiara joandako txinatarrak buruzko erreportaia egiten, eta arazo franko izan zituen. Espiatzat hartu zuten eta guzti. Nik neuk izan ditut arazoak. Saiatu nintzen nere ikasleak buruz azterketa egiten: zenbat anai-arreba zituzten, herrikoak edo hirikoak ziren, eta abar... eta ezin izan nuen. Ikasleak beraiek Poliziaren konfidenteak baitira. Bizitza pribatuaren kontzepturik ez dago Txinan.

EGUNKARIA.— Txinako zibilizazioa Historiako garrantzitsuenak izan da. Oraindik sumatzen dira zibilazio horren aztarnak, edo iraultzak dena zanpatu du?

MAIZ.— Herrietan oraindik sumatzen da, gauza askotan. Adibidez, nahiago dituzte mutikoak neskatoak baino; matxismoa oso nabaria da; neska batek erre edo edaten badu, gaizki ikusita dago; ezkongabe gelditzen bazara, berdin... Hori ezin izan du ezabatu komunismoak, mende-

Lagun baten bidez Txinara irakasle joateko aukera izan zuenean, ez zeukan oso garbi, baina baietza eman ziotenean, herri hori beste modu batez ezagutzeko parada izango zela pentsatu zuen.

Egoeraren nahiko ikuspuntu zehatza ekarri du handik Iruñeko kazetari gazteak eta azken urteotan izaten ari den hazkunde ekonomikoa azpimarratu du, «kapitalismo bortitza sartzen ari baita».



JOXE LACALLE

Tiananmenen ondotik ikasleak zanpatuak dauzkate eta hamarretik gorako taldetan biltzen badira, sakabanatu egiten dituzte».

kuntzari eusten diote, eta ez zaie gustatzen txinera hitz egitea. Oso pobreak dira, baina bere erlijioari eta Dalai Lamari dioten benerazioa dira irauten laguntzen dietena. Hala ere, Txinan ezin da Tibeti buruz hitz egin. Toki publikoetan jartzen du: «Ez da gomendagarria gai publikoaz hitz egitea»: «Ezin da Tibetaz hitz egin», alegia, beti baitago baten bat entzuten, adi. Txinatar bati politikaz galdetzen baldin badiozu, ez dizu erantzungo.

EGUNKARIA.— Zein izan da gehien harritu zaituena, hemendik zeneramatzen topiko guztien artean faltsuen gertatu dena?

MAIZ.— Txinatarraren errespetuarena, kanpokoa denarekin duten jarrera. Txinatarra diplomatikoa da, baina ez du atzeritarra onartzen. Oso zaila da han bizitzea, oraindik baitaukate munduko zibilizatuena diren ustea. Haiek dute kultura eta zibilazipia, eta mendealdekoek ez.

EGUNKARIA.— Eta zerk harritu zaitu era onean?

MAIZ.— Ez dago eskasiarik janaritan, arroza eta barazkiak denendako baitaude. Halaber, hemen galdu dugun lasaitasuna dute han. Hemen dena azkar egin behar da, eta han ez. Bestalde, oinarri etiko miresteak dituzte: familia, adiskidetasuna. Baina txinatarraren artean, beti ere.

tako tradizioa baitago atzean. Berrogei urte gutxi dira historian.

EGUNKARIA.— Hirian ere sumatzen da?

MAIZ.— Dagoen matxismoan. Hori, nere ustetan, komunismoaren aurreko gizartetik dator. Eta unibertsitatean ere nabaria da, oso gizarte itxia baita. Saiatu izan naiz lagunak egiten, baina oso zaila da.

EGUNKARIA.— Txinan badaude zenbait lurralde autonomo, hala nola Tibet edo barrukaldeko Mongolia. Zer moduzko egoera dago han?

MAIZ.— Askoz ere okerragoa. Tibet zanpatuta daukate, eta hara txinatarrak eramaten dituzte, menderatzeko. Baina tibetarra oso gogorra da. Txinera ikastera behartuta daude, baina bere hiz-

NOSKI JATOR

ZALDI EROA

